

'Ur Handia', una exposición para remover conciencias



La mirada poética de Nisa Goiburu, 'hermana pequeña' del grupo Gaur, vuelve a su parque

6699

Balear Uharteetako irla bakoitzean besteetan ez dagoe landare barietate asko dago

Aina Socies Fiol

Mallorcako Tokiko Barietateen Elkarteko koordinatzailea

La exposición 'Insectos' invita a descubrir el mundo más pequeño de la naturaleza

Cristina Enea Fundazioa inaugura en su sede una muestra que pretende dar a conocer cómo viven estos seres que «sostienen la vida en el planeta»

El mundo de los insectos. La muestra es fruto de la colaboración entre la Fundación y el Museo de Ciencias de la Universidad de Navarra.

A través de un recorrido lleno de recursos visuales y sensoriales, las personas que se acerquen a esta exposición podrán experimentar con múltiples aspectos de un mundo como el de los insectos que habitualmente nos es desconocido. Desde las formas y co-

Enak Olavo, técnico de proyectos expositivos de la Fundación, subraya que «esta muestra encaja con nuestra vocación de divulgación ambiental de calidad, pensada para todos los públicos. En un momento en el que la biodiversidad está en riesgo, creemos que es fundamental generar espacios como este, que nos invitan a mirar de cerca lo pequeño, lo que a menudo pasa desapercibido, y que sin embargo sostiene la



BRECHA DE GÉNERO AL ANDAR EN BICI

Estudio. Emakunde presentó ayer en la Zikloteka de Donostia el estudio *Mujeres en bici por las calles de las capitales vascas. Diagnóstico participativo con perspectiva de género*, resultado de la beca que el instituto concede a trabajos de investigación en igualdad de mujeres y hombres. El estudio ha sido realizado por Laura Latorre Hernando, investigadora, formadora, terapeuta narrativa y ciclista urbana, y Guillermo Vera Idoate, especialista en antropología y ética ecológica, a partir de entrevistas y

«Bizikleta batek ez du jaberik, eta horregatik da hain erraza lapurtzea»

ESTHER ANAYA BOIG *Ikerlaria*

Bizikleta partikularrak osteari buruzko ikerketa bat egin du Anayak. Lapurreta horiek geroz eta ohikoagoak direla ikusita, hainbat gomendio eta eskaera egin ditu ikerlariak.



URTEKARIA ANUARIO

2025




Actividades infantiles en Cristina Enea, Urgull y Ulla en verano

La Fundación Cristina Enea ha presentado la agenda de actividades del verano -www.cristinaenea.eus- con las que se invita a la ciudadanía, fundamentalmente a los más pequeños, a acercarse a la naturaleza desde diferentes ámbitos. Aposamos por una Donostia donde niños y niñas crezcan en contacto con la naturaleza, aprendiendo a cuidar y desde pequeños, y donde las niñas puedan disfrutar juntas del tiempo libre, según el consejo de Medio Ambiente, Inig

Calificaciones energéticas

TOTAL EN VIVIENDAS Y EDIFICIOS (2009-2023)



EVOLUCIÓN ANUAL DE CERTIFICACIONES DE VIVIENDA



La muestra hace un guiño al exoesqueleto robótico del traje de Iron Man.



Solo un 7,3% de con certificado

3D que permiten al público interactuar en el contenido. Tal y

nos permite redescubrir, de forma cercana y accesible, la in-

CONSUMO ELÉCTRICO PER CÁPITA (kWh/hab.)

Cristina Enea Fundazioa adin-nagusi izateko bidean da, eta bi urte barru lortuko du hori. Oraingoz, 16 urterekin, nerabeei horrenbeste buruhauste ematen dien lan horretan jarraitzen du: munduan bere lekua bilatzen. 2025 ez da urte erraza izan, baina, une zailei aurre eginez eta gizartea ingurumen- eta jasangarritasun-balioetan hezteko eta kontzientzia- tzeko helburu sendoarekin, ziurta dezakegu fundazioa bide sendo eta zentzuzkoa egiten ari dela, belaunaldi gazteenen ezaugarri diren errebel- diazko zertzeladekin batera. Izan ere, kontsumis- moaren, berehalakotasunaren eta naturarekiko eta iraunkortasunarekiko desatxikimenduaren sirena- kantuei ez amore ematea gero eta zailagoa den garai hauetan, egin dezakegun gauzarik iraultzaile eta emantzipatzaileena da lanean jarraitzea, ingurumena gehiago errespetatuko duen eta jasangarriagoa iz- ango den gizarte-eredu bat lortzeko ilusioarekin eta itxaropenarekin. 2025 honetan, Cristina Enea Fundazioak hiriko txoko berdeak hobeto ezagutzeko proposamenak aurkeztu ditu, ingurumenarekiko hurbilketa bat egin du erakusketa-proposamen ga- rrantzitsu baten eta jarduera zientifikoen bidez, zine- ma hiriko hainbat parketara hurbildu du, eta Santa Klara irla, Urgull, Ulia eta Cristina Enea izan dira jarduera horiek guztiak garatu ditugun agertoki na- gusiak.

Esku artean duzun Urtekari hau gure jarduerak komunikabideetan izan dituen agerpenen errepasoa da, baita sare sozialetan egin dugun lanaren isla ere.

Fundación Cristina Enea se dirige hacia su mayoría de edad, que lo obtendrá dentro de un par de años. De momento, con sus 16 años, continúa en ese arduo tra- bajo que consume a los y las adolescentes: encontrar su propio sitio en el mundo. 2025 no ha sido un año fácil, pero, reponiéndose a las adversidades y con el firme ob- jetivo de educar y concienciar a la sociedad en valores ambientales y de sostenibilidad, podemos asegurar que la fundación está recorriendo un camino firme y sereno, acompañado de pinceladas de rebeldía que caracteriza a las generaciones más jóvenes. Y es que en unos tiempos en los que cada vez cuesta más no sucumbir a los can- tos de sirena del consumismo, la inmediatez y la des- conexión con la naturaleza y la sostenibilidad, lo más revolucionario y emancipador que podemos hacer es seguir trabajando con la ilusión y la esperanza de con- seguir un modelo de sociedad más respetuoso y sosteni- ble con el medio ambiente. Durante este 2025, desde Fundación Cristina Enea hemos presentado propuestas para conocer mejor los rincones verdes de la ciudad, he- mos llevado a cabo un acercamiento al medio ambiente a través de una importante propuesta expositiva y de actividades científicas, hemos acercado el cine a dife- rentes parques de la ciudad, y la isla Santa Clara, Urgull, Ulia y Cristina Enea han sido los principales escenarios donde hemos desarrollado todas esas actividades.

Este Anuario que tienes en tus manos es un repaso a las apariciones que ha tenido nuestra actividad en los me- dios de comunicación y también un reflejo del trabajo que hemos realizado en redes sociales.

Cristina Enea Fundazioa

Fundación Cristina Enea

AURKIBIDEA ÍNDICE

Urtarrila Enero	04
Otsaila Febrero	10
Martxoa Marzo	18
Apirila Abril	21
Maiatza Mayo	29
Ekaina Junio	47
Uztaila Julio	68
Abuztua Agosto	
Iraila Septiembre	79
Urria Octubre	92
Azaroa Noviembre	101
Abendua Diciembre	117
Bideoak Vídeos	121
Sare sozialak Redes Sociales	136
Irratia Radio	137
Telebista Televisión	137
Gaikako aurkibidea Índice temático	138

-  **Cristina Enea Fundazioa** Fundación Cristina Enea
-  **Ingurumen Baliabideen Etxea** Centro de Recursos Medio Ambientales
-  **Ulia Interpretazio Zentroa** Centro de Interpretación Ulía
-  **Urgulleko Natur Txokoa** Natur Txoko de Urgull
-  **Iraunkortasunaren eta Klimaren Behatokia** Observatorio de Sostenibilidad y Clima
-  **Bizikletaren Behatokia** Observatorio de la Bicicleta
-  **Zikloteka**

Exposición de Gotzon Huegun

El escultor donostiarra inauguró su nueva muestra 'Sinkronia' en las salas de Cristina Enea Fundazioa

GENTE DE LA CIUDAD
JOTI DÍAZ

✉ jotidiaz@facilnet.es

Las tres salas del Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián, situado en lo alto del parque Cristina Enea, se quedaron pequeñas para albergar al centenar de personas que se dieron cita el pasado 27 de diciembre en la inauguración de la nueva exposición del artista donostiarra **Gotzon Huegun**.

La muestra que tiene por título 'Sinkronia', reúne varias decenas de obras en talla y pintura y nos invita a reconsiderar la relación entre el ser humano y la naturaleza. Una exposición organizada por el responsable expositivo de Cristina Enea Fundazioa, **Eneko Calvo**, que abrió el acto agradeciendo la gran afluencia de gente. Posteriormente, Huegun dedicó la muestra a todas las madres y citó a la suya, **Isabel Burgos**, presente en la sala. A su lado se hallaban su esposa **Raquel Durán** y su hija **Haizea Huegun**, junto a su novio **Gorka Ipiñazar**, cámara de vídeo en mano.

La muestra se podrá visitar gratuitamente hasta el 16 de marzo y muchos de los alumnos de talla de madera a los que Huegun imparte clase en el Centro Artístico Guipuzcoano no se quisieron perder la inauguración. **Fernando Zabala**, **Iñaki Mendia** y



En el centro, el escultor donostiarra Gotzon Huegun con algunos asistentes a la inauguración de su exposición.

Juan Carlos Saenz de Urturi conversaban amistosamente, mientras a su lado, **Ángel de Diego** saludaba a **José Mari San Sebastián**, **Carlos Valderrey** y al bilbaíno **Sabino Beobide**. De la Asociación Artística de Gipuzkoa se acercaron varios miembros como la presidenta **Sofía Arostegi**, **Soledad Narro**, **Esperanza Lafuente**, **Koldo Ormazabal**, **Rosa Urdanibia** y **Lourdes Mora**.

Tampoco quisieron perderse la cita amigos de Huegun como

Aixa Barbarin y su madre **Lourdes López**, **Igone Gereka** o las hermanas **Mila** y **Sabina Azkue**, venidas desde Oñati. Disfrutando de la muestra estaban **Begoña Azua** y **Cristina Elorz**, junto a la madre de esta última **Elena Vega**. Desde Barcelona llegaban **Itxasne Múgica**, **Carlos Fuentes**, **Alexis Fresnillo** y **Ángels García**. Allí se encontraba también el periodista **Aitor Azurki**, tomando fotografías y vídeos para las redes sociales de la fundación.

El evento pasó de sala en sala conforme Huegun y Calvo explicaban el concepto de cada obra, que observaban detenidamente **Óscar Ochoa** y **Amala Manterola** de Mudanzas Baskotaxi y encargados del transporte de las piezas desde el taller de Huegun, sito en Navarra. Allí estaban los ceramistas **Guada Morán**, **Patxi García Chivite**, **Txus Sanz**, **Amparo Mena** y **Francisco Zelarain** y **Christian Jorin** y **Ona Arias**, que no quisieron perderse la apertura.

Al término de la presentación, todos disfrutaron de un lunch preparado por **Nerea Tena** y **Natalia Meyne**, de Petit Confetti, y charlaron animadamente.

ECOS DE SOCIEDAD

Puede enviar su mensaje a:
Correo postal: Paseo de Mikeletegi, 1,
20009. San Sebastián.
Correo electrónico:
ecos@diariovasco.com

DIARIO VASCO 2025.01.04



ATZEKOZ
AURREA

Kristina Berasain Tristan

DONOSTIA—Zuhaitz adarrak ikusten dira egurrezko obren ondoan dauden leihoetatik. Kristinaenea parkeko baso txikia aterpe ederra da natura ardatz duen erakusketarako. Gotzon Huegun (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1972) pozik da. «Tailerretik ikusten dudana paisaiaren antzekoa da». *Sinkronia* martxoaren 16ra arte egongo da zabalik, eta hilaren 24an, eskultorearen ibilbidea jasotzen duen dokumentala estreinatuko dute Cristina Enea fundazioan: *Sinkronia. Artea eta natura*.

Fisika kuantikoa artelan batean?

Genevako CERN institutuan dagoen hadroi talkagailuak ateratako argazki batean oinarritu naiz pieza hau egiteko. Garai batean asko irakurri nuen fisika kuantikoaz. Paradigma berriak sortu ziren garaiaz ari naiz. Oso erakargarria egiten zitzaidan, eta liburuak irakurtzean irudiak etortzen zitzaizkidan. Halako batean argazki txiki bat topatu nuen; hidrogenozko partikula subatomikoak azaltzen ziren, talka egiten ari zirela, eta zirrara berezi bat sentitu nuen. Oso irudi ederra zen, eta istant horren edertasuna islatzen saiatu naiz. Beti nabil edertasunaren atzetik.

Espiralak ikusten dira...

Bai. Liburuak irakurtzean ohar-tu nintzen ikusten den hori bizitzaren sorrera dela. Fisikari batzuekin hitz egin nuen, eta beraiek azaldu zidaten bizitzaren elementu basikoak ikertzen dituztela horrela. Jada badakite atomoak baino txikiagoak diren partikula subatomikoak daudela, eta horiek baino txikiagoak diren molekula basikoak. Talka egitean ikusten dituzte elementu txiki horiek... Nik plastika hartzen dut kontuan, estetika, edertasuna...


Sinkronia da izenburua.

Azkenaldiko nire obra laburbiltzen duen hitza da *Sinkronia*. Kausalitate bat dago denean. Bi elementu elkartzaren diren une hori da sinkronia. Hidrogenozko partikula subatomikoen talka islatu dut zurezko pieza batean, eta hori sinkronia hutsa da, baina badaude mural gehiago ere: neuronen konexioak irudikatu ditut pieza txikiagoetan, eta baita likena ere. Likenak alga baten

«Hidrogenozko partikula subatomikoen talka islatu dut zurezko pieza batean»

GOTZON HUEGUN *Eskultorea*

Cristina Enea fundazioan paratu du bere azken erakusketa Gotzon Huegunek. Hamazazpi mural, bost eskultura eta zenbait zirriborro ikus daitezke. «Naturaz gain, zientzia oso presente dago nire lanean».



Gotzon Huegun, asteartean, Cristina Enea fundazioan, Donostian. GORKA RUBIO / FOKU



«Pieza bat egin ostean egiten ditut interpretazioak. Gero etortzen da diskurtsoa. Niretzat lan estetikoa da»

eta onddo baten elkarlanari esker sortzen dira. Hor ere sinkronia bat dago. Kontzeptualki indarra dago elkarlanaren ideian; ez dira ari norgehiagoka, eta, gainera, gure planetan dauden bizidunak antzinakoenetakoak dira.

Neuronen konexioak ere islatu dituzu?

Naturaz gain, zientzia oso presente dago nire lanean. Mikroskopia elektronikoen bidez ikus ditzakegun irudiak izugarri ederrak dira. *El jardín de la neurología* liburua topatu nuen. Javier de Felipe Orokietaren liburua da, eta hari eskatu nion baimena betan agertzen diren irudiak erabiltzeko. Ramon y Cajalek neuronen zirkuituak marraztu zituen. Hori-etan oinarrituta egin nituen lan horiek. Inspirazioaren zirkuitu bat irudikatu nuen koloreen bidez, eta izenburu hori jarri diot: *Inspirazioa*. Beti galdetzen didate nondik datorkidan...

Eta nondik datorkizu?

LOTSABAKO

Lanerako, musika edo isiltasuna? Musika

klasikoa, bereziki Johann Sebastian Bach.

Artista bat? Michelangelo.

Obra bat? Willendorfeko Venus.

Ez dakit erantzuten. Istant bat da, bulkada bat, irudi bat... Pieza bat egin ostean egiten ditut interpretazioak. Gero etortzen da diskurtsoa. Niretzat, lan estetikoa da, ez dut hasieratik planteamendu filosofiko bat egiten. Hori gerora dator, eta gustatzen zait horrela izatea. Bidea jolas bat da horrela. **Dena den, natura da zure lanaren ardatza.**

Bai. Azkaraten [Nafarroa] bizi naiz, eta basoa etxe atarian daukat. Balerdi mendia ikusten dut tailerretik, piramide eder hori. Araitx ballarako basoetan ibiltzen naiz, baina, itsasotik gertu biziko banintz, itsasoaren edertasuna landuko nuke.

Zure arbasoek ere egurra izan zuten ogibide.

Aiakoak [Gipuzkoa] gara aitaren aldetik. Aitona eta birraitona baso gizonak izan ziren. Leon Huegun aizkolari ospetsua ere aitonen lehengusua izan zen. Aurkikuntza moduko bat izan da hori. Beraiek egurra ateratzen zuten, eta nik orain egurra lantzen dut. Hor beste sinkronia bat dago, **Harria ere lantzen duzu...**

Niretzat bi elementuak dira beharrezkoak. Egurra goxoagoa da, eta harria, berriz, sendoagoa. Euskaldunok egurra eta harria izan ditugu, eta nortasun bat sortzen dutela esango nuke. Niretzat oso erakargarriak dira biak. Material maitatuak dira biak.

Euskal Herriko eskultore handien material kuttunak ere izan dira egurra eta harria.

Bai. Oteiza maisu bat da. Ate bat ireki zigan. Arteak espiritualtasunarekin zerikusia duela erakutsi zigan. Hutsunearen ideia horrek asko erakartzen nau. Oteizaren testuetan, teorietan eta planteamenduetan geratu dira asko, baina harago dauden ideia sakonak iruditzen zaizkit niri erakargarriak; haren hutsunean maitasuna dagoela uste dut.

Xabier Leteren eta Xenpelarren omenezko eskulturak ere egin izan dituzu...

Xenpelarreña Erreterriako Udaren lehiaketa bat izan zen. *Xenpelarren fruituak* eskultura hiru metro luze da, eta bi tona pisatzen ditu. Altzairuz egina dagoen zuhaitz bat da. Hor ere sinkronia polit bat egon zen. Oteizak eskultura bat egin nahi izan zion, baina frankismoaren garaia ziren. Inaugurazio egunean bertso-lariak etorri ziren. Andoni Egañak horrela bota zuen: «Oteizak egin ezin izan zuena Huegunek egin digu». Une hori ez dut sekula ahaztuko. Oso polita izan zen, oso ederra. ●

BERRIA 2025.01.09

“ ”

Balear Uharteetako irla bakoitzean besteetan ez dagoen landare barietate asko dago

Aina Socies Fiol

Mallorcako Tokiko Barietateen Elkarteko koordinatzailea

Oporlekuekin soilik lotuko dituzte askok Balear Uharteak, baina agroekologiaren eta kontsumoaren bueltan mugimendu bizia dute Mallorca irlan: Associació de Varietats Locals de Mallorca (tokiko hazi barietateen elkartea) da horren adibide. Abenduaren hasieran, elkarte horretako koordinatzaile den Aina So-

cies Fiol Donostiako Kaxilda liburudendan izan zen hitzaldia ematen, Cristina Enea Fundazioaren Haziera proiektuak gonbidatuta. Euskal Herritik mugitu beharrik gabe, Mallorcara hurreratzeko aukera ederra izan zen, Kantineko sukaldariek prestatutako hango mokadu goxoarekin lagunduta.

✂ GARAZI ZABALETA 📷 DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

Turismoak gogor jo du zuenean. Nola eragin du horrek nekazaritzan?

Eragin handia izan du turismoak irla guztietan. 1960ko hamarkada ingurura arte, herritar gehienak nekazaritzatik bizi ziren, baina garai hartan belaunaldien arteko erreleboan etena gertatu zen, jendea beste sektoreetako lanetara pasatu zelako. Nire etxekoa adibide argia da: artzaina zen nire aitona, eta familia osoa Mallorcako Prat de Sant Jordira joan zen bizitzera, aireportu inguruko lurretara, baratzerako toki oso aproposa zelako. Buruaskiak ziren: behiak zituzten, baratzea... baina, momentu batean, aireportuan lana eskaini zioten aitonari. Artzaintzari eustea erabaki zuen berak, bere bizitza hori zelako, baina beste as-

kok ez zuten hautu hori egin. Eta, hurrengo belaunaldian, seme-alabetako inork ez zuen segi, errazagoa zelako turismoan, zerbitzuetan edo bestelakotan lan egitea.

Gutxi zarete hazien bueltan lanean ari zaretenak, baina badirudi mundu horrek baduela guztiz harrapatzen zaituzten zerbait. Zure kasuan, zer izan da?

Uste dut nire etxean betidanik egin den zerbait izateak bazuela bere garrantzia, azkenean, oso hurbiletik bizi izan bainuen, baina mundu honetan murgildu arte ez nion baliorik eman. Inguruko pertsonak, herrietako jendeak, mintegietako kideek, lan hori egiten zuten,

baina urteekin garrantzia galtzen ari zen eta asko jarduna uzten ari ziren. Nire belaunaldikook, oro har, bizkarra eman diogu lurrari. Hor dago, bizi naiteke landa eremuan, baina ez dut horrekin inolako loturarik. Orain hirian bizi naiz ni, baina badut nolabaiteko harremana, lurrarekin lotutako balore eta egiteko moduak defendatzen ditut. Kontua ez da lehengo bizitzara bueltatzea, baina bai orduko zenbait elementuri balioa ematea: zure hazi propioak gordetzea, ezagutzen duzun horrekin elikatzea. Erraza dirudi, baina gaur egun arraroa bihurtu da.

Irla izateak nola eragin du haziengan eta horien mugimenduetan?

ARGIA 2025.01.12

Beti pentsatu dut ongi legokeela balear irla guztietan ikerketa sakonagoa egitea, gu batik bat Mallorcan ari baikara. Kontuan izan behar da Mediterraneo erdian gaudela eta kultura asko pasa direla bertatik, pena da hazien mugimenduei lotutako aztarnarik ez izatea. Egia da irla bakoitzak bere idiosinkrasia duela, desberdinak gara eta labore batzuk gailentzen dira bakoitzean. Menorca irla guztiz abeltzaina da, baina nekazaritzan, frutarbolekin ari dira batik bat. Ibizan, olibondoak eta almendrondoak dira nagusi, eta Mallorcan, berriz, pikondoetan dugu aniztasun handia. Errepikatzen ez diren barietate asko dago; adibidez, Mallorcan oso bertakoa den eta guztiz integratua dagoen piper barietate bat dugu, *pebre ros*, entsaladan gordinean jaten dena. Besteetan ez dute piper hori. Bestalde, gure arteko lotura asko eta partekatzen ditugun barietateak ere badira. Esaterako, Ibizan tipula bat berreskuratu dugu, *ceba vermella eivissenca*, eta ohartu gara Mallorcako *ceba vermella d'Andratx*-en berdin-berdina dela! Andratx Ibizatik gertuen dagoen Mallorcako herrietako bat da, beraz, pentsatzekoa da lotura badutela. Zenbait meloi barietaterekin ere gertatu zaigu hori.

Mediterraneoa omen da klima aldaketaren eragin handiena sumatzen ari zareten tokietako bat. Nola bizi duzue hori, eta zein paper jokatzan dute tokiko barietateek testuinguru ezegonkor honetan?

Uda oso luzeak eta lehorrak izaten ari gara azken urteetan. Gero, udazkenean, euria barra-barra egiten du, baina ondoren berriz lehortea, udaberrian ez baitu ia euririk egiten. Egoera horretan, zenbait tokiko barietate, mahastiak eta zereala adibidez, ongi ari dira egokitzen, lehortearen aurrean oso erresistenteak direlako. Zerealen kasuan, enpresa asko ari da alor esperimentalak egiten tokiko barietateekin eta hibridoekin, eta ikusi dute lehorteari hobeki erantzuten diotela tokikoek. Baina, aldiz, Mallorcako txitxirioa, otsailean estentsiboan ereiten zena eta uda hasieran bildu, arazo handiak izaten ari da. Nekazariak pentsatzen ari dira baratzeako labore bezala, ureztatze sistema bidez lantzen hastea, edo udazkenean ereitea, bestela ez duelako ematen. Klima gero eta gogorragoa eta konplexuagoa izanen dugu, eta testuinguru horretan, tokiko barietate batzuk irabazten aterako dira, baina beste batzuk ez.



Associació de Varietats Locals de Mallorca elkartearen proiektuak

22 urte dira elkarte sortu zene-tik, eta hainbat lan ildo izan arren, ardatz nagusi bat dute: tokiko barietateak ugaltzeko proiektua. "Urtero berritzen dugun barietateen katalogoa dugu. Balear Uharteetan hazi ekologikoak ekoizten dituen proiektu bakarra gara, eta Espainia-ko Estatuan ere gutxi gara", dio Aina Sociesek. Haziak ugaltzeko guztira 22 ekoizle hartzen du parte proiektu-

tuan. "Hazien sobreak 40 denda kolaboratzaileetan saltzen ditugu, eta sobreetan sartzeko lana buru osasuneko erakunde bateko kideek egiten dute, haiekin dugun lankidetzaz harremanaren bidez".

Profesionalentzat nahiz eskoletako haurrentzat formazioak ere egiten dituzte elkartetik, eta hainbat ikerketa proiektu dituzte martxan, esaterako, arte gozoen inguruko bat.

Tomatiga de ramellet kasua: agroindustria tokiko barietateez jabetzen denean

Mallorcako tokiko barietate bat aipatzeko eskatzen badidazu, mundu guztiak ezagutzen duen barietate bat, *tomàtiga de ramellet* esanien dizut, azaldu du Socie-sek. Hain justu barietate horri buruz egina du master amaierako lana. Zintzilikatze mota bat da, ogi txigortuan zabaldua jateko aproposa, Tramontana mendilerroko Banyalbufar herrian jatorria duena. "Herri hori urteetan bizi izan da tomate mota horren ekoizpenetik, kaxak eta kaxak esportatzen zituzten Bartzelonara, txirikordetan jarrita. Emakumeen lana izaten zen txirikordatzea, eta etxeetako goialdeetan zintzilikatzen zituzten", dio. Tomate mota horri lotutako ezagutza eta kultura zabalago dago herrian, eta etxe bakoitzak bere haziak gordetzen zituen.

Baina genetista israeldar batzuek Mallorcako hainbat etxaldetan ibili ziren tomate mota horrekin probak egiten, eta urteetako ikerketaren ondoren, tokiko barietatean oinarritutako hibrido bat sortu zuten. Gaur da eguna, supermerkatu eta banaketa kate handietan izendapen hori daraman tomate hibridoa saltzen dutena, tokiko barietatea balitz bezala.

Elkartetik borroka handia egin dute kasu honen harira, izan ere, legez debekatua dago tokiko barietate baten izena marka baterako erabiltzea. Praktikan, baina, gauzak bestelakoak dira... "Hori gutxi balitz, Agromallorca banatzaile handiak 'Tomàtiga de ramellet de Mallorca' izeneko 'berme zigilua' sortu du barietate hibridoarentzat, administrazioaren onespenerekin. Gezurretan ari dira, kontseilaritzaren babesarekin", dio. Mallorcan tokiko barietate askok biziraun dute bertako gastronomiarekin duten lotura estuari esker, horren kontziente da elkarteko kidea. Baina txanponaren beste alde ere hor dago, eta salatzen duenez, gastronomiaren izenean barietate asko "perbertitu" egin dira.



Zergatik da garrantzitsua tokiko barietateak kontserbatzea eta ugaltzea?


Elikadura burujabetzaren oinarria direlako eta zerekin elikatu nahi dugun erabakitzeko boterea ematen digutelako. Aukera ematen digute guk geuk erabakitzeko, edo inguruko nekazari-ek, toki bakoitzean zer erein nahi den. Honek ere erraza dirudi, baina gaur egun oso zaila da praktikan jartzea. Adibide bat: Mallorcako nekazari gehienek, baita ekologikoan ari direnek ere, Iberiar penintsulatik ekartzen dute barietate hibridoaren plantela. Ba-

dirudi hazia, lurrean jartzen den lehen elementu hori, garrantziaren katean azken lekuan gelditzen dela.

Baina hazia nire irizpideen arabera urteetan aukeratzen badut, nire behar eta nahietara egokitua egonen da. Kanpotik ekarritakoa ez dakigu nongoa den, ezta zein portaera duen ere, hazien enpresa komertzialek erabakitzen dute zer ereinen duzun, eta horien meneko zara. Eta bestetik, tokiko barietateen alderdi kulturala ere hor dago: ondare immateriala, haziari lotutako ezagutza, maneiua, errezetak, sukaldean prestatzeko moduak... ●



ARGIA 2025.01.12



(argazkia: Aitor Azurki)

DONOSTIA ERAKUSKETA GIPUZKOA NABARMENDUAK PORTADAN

GOTZON HUEGUN ARTISTAREN 'SINKRONIA' ERAKUSKETA PARATU DUTE DONOSTIAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEAN

By KulturSharea / 2025-01-14



Material eta forma ugariz eginiko piezak biltzen ditu erakusketa honek. Martxoaren 16ra arte bisitatu ahal izango da.

Gotzon Huegun eskultore donostiarraren *Sinkronia* erakusketak gizakiaren eta naturaren arteko harremana berriz aztertzea gonbidatzen gaitu, gure ingurune naturalarekin oreka bat berrezartzeko eraldaketa sakon baten premia nabarmenduz. Artistaren lanen bidez, zientziaren, naturaren eta gizatasunaren arteko tentsioak eta harmoniak aztertzen dira, lotura horren konplexutasuna islatzen duten forma eta ehundura organikoak erabiliz. Cristina Enea Fundazioaren esanetan, "Ingurumen Baliabideen Etxeko hiru aretoetako bakoitzak esperientzia murgiltzaile bat eskaintzen dio bisitariari: zientziaren eta naturaren arteko norgehiagoka, ekosistemaren barruan dugun tokiari buruzko gogoeta, eta sinkronia proposamenaren gailurra".

Huegunen formatu handiko lanek "erronka egiten diote zientziak dugun pertzepzioari, naturarekin zerikusirik ez duen zerbait bezala, biak elkarrekin oso lotuta daudela erakutsiz", azaldu dute Fundazioko kideek. "Azken fasean, Sinkronia iradokitzen du mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat lortzeko modu bakarra ingurunearekin dugun harremana eraldatzea dela adieraziz, gizakiaren eta naturalaren arteko sinkronia sortuz. Erakusketa hau ekintzarako deia da, munduan dugun zeregina birplanteatzeko eta izaki bizidun guztiek harmonian aurrera egin ahal izango duten etorkizunarekin konprometitzeko".

Erakusketa martxoaren 16ra arte egongo da ikusgai, doan.

KULTURSHAREA 2025.01.14

Uliako putzu sarea ezagutzeko bisita gidatua antolatu dute



Sara Ibarguren(<https://irutxulo.hitza.eus/sinadurak/sara-ibarguren/>) @saraibarguren (<https://twitter.com/saraibarguren>)
2025 (<https://irutxulo.hitza.eus/2025/01>) (<https://irutxulo.hitza.eus/2025/01>)/30 (<https://irutxulo.hitza.eus/2025/01/30>)

Hezeguneen Munduko Eguna izango da otsailaren 2an, eta Cristina Enea fundazioak Uliako putzu eta hezeguneak ezagutzeko bisita gidatua antolatu du. "Ulia mendian putzuen eta hezegune txikien sare garrantzitsu bat sortzen ari da, Donostiako Udalaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen lankidetzarekin", nabarmendu dute.

Ulia Interpretazio Zentroko arduradun Oihana Orkolagak azaldu duenez, "Aranzadin adituak dira putzu eta hezeguneen ikerketan, eta esku artean dute *Mikroklima* izeneko proiektu parte hartzailea; aurten ere beraiekin parte hartzeko aukera paregabea izango dugu".

Mikroklimak edozein kontserbazio proiektuk barne hartu behar dituen jarduerak biltzen ditu: ikerketa, kudeaketa eta dibulgazioa. Otsailaren 2ko irteeran, Ulia Interpretazio Zentroan azalpen batzuk jaso ondoren, putzu sareko bi hezegunetan ikerketa eta kudeaketa jarduerak egiteko bertaratzen direnek: "Batetik, Uliako mikro hezeguneetako biztanle txikiak ezagutarazteko eta balioesteko, eta, bestetik, urmael horien erakargarritasun biologikoa areagotzeko kudeaketa ekintza errazak egingo dira", gaineratu du Orkolagak.

Irteera puntua Ulia Interpretazio Zentroa izango da, 10:00etan. Izen ematea zabalik dago, www.cristinaenea.eus (<https://www.cristinaenea.eus/eu/berriak/10776-uliako-putzu-sarearen-aberastasuna-ezagutzeko-irteera-gidatua>) webgunean.


HITZA 2025.01.30

Baños de bosque en Uliá el próximo domingo día 16

Cristina Enea Fundazioa organiza el próximo domingo día 16 en el Centro de Interpretación de Uliá una nueva sesión de baños de bosque. La cita se celebrará en castellano y las inscripciones están abiertas en la web de la fundación. Este es un tipo de actividad, de dos horas de duración, que tiene como objetivo obtener niveles altos de bienestar, tanto físico como mental. **by**

DIARIO VASCO 2025.02.05

'Emakume zientzialariak argira' erakusketa ireki dute



'Emakume zientzialariak argira' erakusketa.  [Cristina Enea fundazioa](#)

Irutxuloko Hitza @irutxulo

2025/02/11

Cristina Enea Fundazioak eta Elhuyarrek *Emakume zientzialariak argira* erakusketa inauguratu dute Gladys Enea parkeko Ingurumen Baliabideen Etxean, "emakume zientzialariak hurbiltzeko" helburuarekin. Apirilaren 27ra egongo da ikusgai, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin bat eginez ireki dute.

Erakusketak hamabi figura zientifiko ditu hizpide, euren bizitza, lorpenak eta ibilbidea erakusketarako bereziki diseinatu diren laminen bidez azalduz. "Ekimen honen bidez, zientziari eta teknologiari modu esanguratsuan lagundu dioten emakumeen istorioak hurbildu nahi dizkiogu publikoari, eta haien lana eta ondarea ikusarazi", azaldu du Eneko Calvo Etxarte fundazioko erakusketa proiektuen arduradunak.

Proiektuak hamabi emakume zientzialari hauek ditu hizpide: Amena Karimyan (Herat, Afganistan, 1996), astronomoa, aktibista eta idazlea; Dorotea Barnes Gonzalez (Iruñea, Nafarroa, 1904-2003), kimikaria; Halet Çambel (Berlin, Alemania, 1916-2014), arkeologoa eta eskrimalaria; Harriet Martineau (Norwich, Erresuma Batua, 1802-1876), ekonomialaria eta soziologoa, Jeanne Baret (La Comelle, Frantzia, 1740-1807), botanikaria; Lurdes Ansa Maiz (Andoain, 1961), zientzia materialen edizio arduraduna, Margaret Crane (Indiana, AEB, 1941), publizista eta asmatzailea; Maria Jesus Esteban Galarza (Alonsotegi, Bizkaia, 1955), matematikaria; Nawal El Saadawi (Kairo, Egipto, 1931-2021), medikua, idazlea eta aktibista; Patricia Rodriguez Brennan (Bogota, Kolonbia, 1971), biologo ebolutiboa; Suzuko Ainhua Tamura (Aichi, Japonia, 1934-2015), hizkuntzalari eta Uxue Lazkano Dobao (Bergara, Gipuzkoa, 1995), biologo konputazionala.



BERDINTASUNA

DONOSTIA

ERAKUSKETA

FEMINISMOA

GIPUZKOA

NABARMENDUAK

PORTADAN

‘EMAKUME ZIENTZIALARIAK ARGIRA’ ERAKUSKETA ZABALDU DUTE GAUR, DONOSTIAN

By KulturSharea / 2025-02-11

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira (otsailak 11) antolatu dute erakusketa hau Cristina Enea Fundazioak eta Elhuyarrek.

Dorotea Barnes kimikaria (Iruñea, 1904-2003), Jeanne Baret botanikaria (La Comelle, Frantzia, 1740-1807), Lurdes Ansa zientzia-materialen edizio-arduraduna (Andoain, 1961), Maria Jesus Esteban matematikaria (Alonsotegi, Bizkaia, 1955), Uxue Lazcano biologo konputazionala (Bergara, Gipuzkoa, 1995) edota Suzuko Ainhoa Tamura hizkuntzalaria (Aichi, Japonia, 1934-2015) dira Cristina Enea Fundazioak eta Elhuyarrek omendu nahi dituen zientzilarietako batzuk, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira. Horretarako *Emakume zientzialariak argira* erakusketa zabaldu dute gaurtik hilaren 27ra bitartean Donostiako Cristina Enean.

Orotara hamabi emakume zientifiko eta euren bizitza, lorpenak eta ibilbidea jendaurrean erakustea da helburua, bereziki diseinatu diren laminek bitartez.

Eneko Calvo Etxarte Fundazioko erakusketa-proiektuen arduradunaren hitzetan, “ekimen honen bidez, zientziari eta teknologiarri modu esanguratsuan lagundu dioten emakumeen istorioak hurbildu nahi dizkiogu publikoari, eta haien lana eta ondarea ikusarazi”. Izan ere, erakusketa honek euskal jendarteari eta, modu berezian, haur eta gazteei, hurbildu nahi dizkio zientziaren eta teknologiaren alorreko emakume erreferente errealeak, oraingoak eta iraganekoak, hainbat jakintza-arlotakoak, arrazializatuak, hasiberriak diren emakume gazteak eta bide profesional luze eta oparoak egindakoak, besteak beste.

Bizilabe sarea

Elhuyar duela bost urte hasi zen **Bizilaberen** barnean nazioarteko egun honen inguruko ekimenak antolatzen, gazteentzako jarduera zientifiko eta teknologikoak egiteko aisialdi-jardueren eskaintzaren barruan.

Horiek horrela, Cristina Enea Fundazioak ekimen honekin bat egin du gaur, otsailak 11, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna dela kausa; zehazki, beste hamaika herriekin batera: Abanto-Zierbena, Arrasate, Arrigorriaga, Azkoitia, Barakaldo, Bilbo, Durango, Elgoibar, Ordizia, Iruñea eta Irura.

“Erakusketa xumea izan arren, mezua oso indartsua da: emakumeek zientzian duten talentua aitortzea eta estereotipoak hausten laguntzea”, adierazi du erakusketako arduradunak. Izan ere, Elhuyarrek urte osoan dihardu neskek zientzia- eta teknologia-gaietan parte har dezaten bultzatzen, STEAM hezkuntzaren bitartez. Horretarako, emakume zientzialarien lanaren balioa nabarmentzen eta bistaratzen du, erreferenteak sortzeko eta, hainbat proiekturen bidez, emakume zientzialarien eredia hurbiltzeko gazteei. Hala, emakume horien bizitza, ibilbidea eta eredia ezagutzeko aukera ematen zaie, uste okerrak eta estereotipoak gainditzeko.

12 zientzialari omenduak

- Amena Karimyan (Herat, Afganistan, 1996). Astronomoa, aktibista eta idazlea
- Dorotea Barnes Gonzalez (Iruñea, Nafarroa, 1904-2003). Kimikaria
- Halet Çambel (Berlin, Alemania, 1916-2014). Arkeologoa eta eskrimalaria
- Harriet Martineau (Norwich, Erresuma Batua, 1802-1876). Ekonomialaria eta soziologoa
- Jeanne Baret (La Comelle, Frantzia, 1740-1807). Botanikaria
- Lurdes Ansa Maiz (Andoain, Gipuzkoa, 1961). Zientzia-materialen edizio-arduraduna
- Margaret Crane (Indiana, AEB, 1941). Publizista eta asmatzailea
- Maria Jesus Esteban Galarza (Alonsotegi, Bizkaia, 1955). Matematikaria
- Nawal El Saadawi (Kairo, Egipto, 1931-2021). Medikua, idazlea eta aktibista
- Patricia Rodríguez Brennan (Bogotá, Kolonbia, 1971). Biologo ebolutiboa
- Suzuko Ainhua Tamura (Aichi, Japonia, 1934-2015). Hizkuntzalaria
- Uxue Lazcano Dobao (Bergara, Gipuzkoa, 1995). Biologo konputazionala

KULTURSHAREA 2025.02.11

'Sinkronia' erakusketaren bisita gidatuak egingo ditu Gotzon Huegun artistak

Eskultore donostiarrak Gladys Enea parkeko Ingurumen Baliabideen Etxean duen bilduma erakutsiko du hilaren 23an.



Eskultorearekin bilduma ikusteko aukera izango dute bisitariak.  **Cristina Enea Fundazioa**

Irutxuloko Hitza @irutxulo

2025/02/17

Urte hasieratik ikusgai dago Gotzon Huegun eskultorearen lanekin osatutako *Sinkronia* erakusketa Ingurumen Baliabideen Etxean. Bildumak gizakiaren eta naturaren arteko harremana berriro aztertzeraz gonbidatu nahi du ikuslea, ingurune naturalarekin oreka berrezartzeko eraldaketa sakon baten premia nabarmenduz.

Horri lotuta, Cristina Enea Fundazioak hilaren 23an Huegunen obraren nondik-norakoak biltzen dituen dokumentalaren emanaldia egitea aurreikusi bazuen ere, hori beharrean, bi bisita gidatu antolatu ditu. Lehena, gazteleraz, 11:00etan, eta, bigarrena, euskaraz, 12:00etan. Aldez aurretik izena eman behar da www.cristinaenea.eus webgunean. «Ikusi dugu erakusketa bisitatzen duten pertsonen aldetik eskaera bat dagoela bertako lanen eta piezen inguruko informazioa jasotzeko, eta iruditu zaigu aberasgarriagoa izango dela bigarren proiektzio baten ordeztu artistak berak eskainitako bi bisita gidatu antolatzea», azaldu du Cristina Enea Fundazioko erakusketa-proiektuen arduradun Eneko Calvok.

Eraikineko hiru aretoetako bakoitzak esperientzia murgiltzaile bat eskaintzen dio bisitariari. Eskultoreak zientziaren, naturaren eta gizatasunaren arteko tentsioak eta harmoniaz aztertzen ditu, lotura horren konplexutasuna islatzen duten forma eta ehundura organikoak erabiliz.

HITZA 2025.02.17

Donostiako ikastetxeetan biltzea organikoko kuboak hornitzeko hitzarmen berria

Por Redactor - 25 febrero, 2025



27.000 ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute Eskolan Konposta programan, FCC eta Cristina Enea Fundazioaren laguntzarekin

FCC Medio Ambiente erakundeak materia organikoa biltzeko 60 ontzi eman dizkio Cristina Enea Fundazioari, bi erakundeek sinatutako lankidetzaz-hitzarmenaren esparruan. Cristina Enea Fundazioak 11 urte daramatza Eskolan Konposta proiektua garatzen Donostiako eta inguruko ikastetxeetan. Proiektu horren bidez, ikasleak kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi dira hondakinen gaikako biltzetaren garrantziaz, zehazki materia organikoz, ondoren konposta egin ahal izateko.

Ekologiako zinegotzi Iñigo Garcíak nabarmendu duenez, garrantzitsua da "herritarrek kontzientziaztea egunero sortzen ditugun hondakinak murriztu behar direla, besteak beste, zaborretara botatzen jarraitzen dugun materia organikoa. Kontzientziazio hori eskola-ingurunean hasteak, gazteenekin, balio espezifiko esanguratsua du. Iaz, edukiontzietan eta hiriko ekoizle handietan bildutako materia organikoa 9.5 tona izan zen, eta ingurumena hobetzen laguntzeko modu egokia da konpost moduan berrerabiltzeko programetan eta politiketan eragitea".

Eskolan Konposta programa ikastetxeetan bertan garatzen da, ikastetxeko langileen prestakuntzari, Cristina Enea Fundazioak konpostagailuak instalatzeari eta ikasleentzako saio didaktikoak emateari esker. Proiektua hasi zenetik, hezkuntza-ziklo guztietako 20.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute proiektuan, eta 800 saio didaktiko baino gehiago egin dira ikastetxeetan.

Orain arte, eta azken urteotan bi erakundeen artean sinatzen ari den hitzarmen honi esker, FCCk materia organikoa biltzeko emandako 980 kubo banatu dira, Eskolan Konposta ekimenak ezarritako helburuak lortzeko zati garrantzitsua.

BIZKAIAGAUR 2025.02.25

Más de 27.000 alumnos de Donostia se conciencian sobre la recogida de residuos

El proyecto 'Eskolan Konposta' se desarrolla en los centros escolares con sesiones didácticas

E.P.

25-02-25 | 16:05



Renovación del convenio para el suministro de cubos de recogida de materia orgánica dentro del proyecto "Eskolan Konposta" / FUNDACIÓN CRISTINA ENEA

Más de 27.000 alumnos de Donostia y su área de influencia (Mancomunidad de San Markos) participan este curso en la iniciativa *Eskolan Konposta* de **recogida de residuos orgánicos y elaboración de compost** en el propio centro escolar.

FCC Medio Ambiente ha entregado al Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Donostia, a través de Fundación Cristina Enea, **60 recipientes para la recogida de materia orgánica**, en el marco del convenio de colaboración suscrito entre ambas entidades.

11 años de 'Eskola Konposta'

Fundación Cristina Enea lleva **11 años desarrollando el proyecto *Eskolan Konposta*** en los centros escolares de Donostia y alrededores, a través del cual se pretende "concienciar y sensibilizar" al alumnado sobre **la importancia de la recogida selectiva de residuos**, en concreto de la materia orgánica, para después poder elaborar compost.

El concejal de Ecología, Iñigo García, ha destacado la importancia de "concienciar a la ciudadanía de la necesidad de reducir los residuos que generamos a diario, entre ellos la materia orgánica que seguimos arrojando a la basura".

"Solo el año pasado, la materia orgánica recogida en los contenedores y grandes productores de la ciudad sumó 9,5 toneladas e incidir en programas y políticas de reutilización en forma de compost es una buena forma de contribuir a la mejora del medio ambiente", ha asegurado.

Desarrollo en los centros

El programa *Eskolan Konposta* se **desarrolla en los propios centros escolares** gracias a la formación del personal del centro y a la instalación de las compostadoras por Fundación Cristina Enea, así como a la impartición de sesiones didácticas para el alumnado.



Desde el inicio del proyecto, **más de 20.000 escolares de todos los ciclos educativos han participado en el mismo**, llevándose a cabo **más de 800 sesiones didácticas en los centros escolares**. Hasta la fecha, y gracias a este convenio que se viene suscribiendo entre ambas entidades durante los últimos años, se han repartido un total de 980 cubos de recogida de materia orgánica aportados por FCC, parte importante en la consecución de los objetivos marcados por la iniciativa *Eskolan Konposta*.

Por su parte, Xabier Zabala, responsable de FCC Medio Ambiente, ha destacado que "la concienciación sobre la gestión de nuestros residuos hay que aprenderla desde jóvenes, pasando del aprendizaje a la responsabilidad que todos debemos tener en dicha gestión". "La fracción orgánica ha sido la última en incorporarse a la separación de los residuos en nuestros hogares y hay que hacer un esfuerzo para que forme parte de nuestros hábitos", ha añadido.

Donostiako Udala eta Cristina Enea Fundazioa fruta arbolak landatzen ari dira Bidebietan, haurren ekimenez



Bidebietako umeak Carlos Garciarekin batera landatzen. © Donostiako Udala

Maidier Artola

2025/03/21

Donostiako Udalak eta Cristina Enea Fundazioak fruta arbolak landaketa egin dute Bidebietan, FruitOndoaren egitasmoaren barruan. Ekintza honek Donostiako hiri parkeetan sei landaketa eremu sortzea du helburu. Ingurumen zinegotzi Iñigo Garcia Villanuevak azpimarratu duenez, proiektua "haurren ekarpenetik sortu da". Izan ere, Bidebietako ADSIS Fundazio Zentroko ikasleek eta Auzoko Ahotsak Ekialdeko Barrutiko haurren partaidetzarako foroak egindako eskaerari erantzuten dio.

Landaketa ekitaldia Bidebietan, Cesar Benito futbol zelaiaaren eta Makondo urbanizazioaren arteko pasealekuan gauzatu dute. Bertan, gazteek eta ADSIS Fundazioaren FBP zentroko ikasleek errexil eta pelestina barietate autoktonoetako dozena bat sagarrondo landatu dituzte. Garcia Villanuevak nabarmendu duenez, "ingurumen kontzientziazioaren adibide bat da, auzoaren izaera naturala indartuko du eta ikasleek berariaz zainduko dute bere garapena". Halaber, FruitOndoan ekimena hiriko hainbat gunetan garatzen ari dela azaldu du, sagarrondo mota desberdinak landatuz.

Cristina Enea Fundazioko teknikari Oihana Orkolagak azaldu duenez, jarduera hau "inguruko elkarte eta kolektiboekin harreman zuzena duen proiektua da, bai landaketa eta zaintzarako, bai eta uztza biltzeko ere". Orkolagaren hitzetan, helburua da "lore zaintza parte hartzailea eta herritarren eta erakundearen arteko lankidetzak sustatzea", espazio horiek komunitatearen parte bihurtzeko. Gainera, ADSIS Fundazioak Guardaplata erretiratuen elkartearekin garatzen duen laborantza eta baratze txikiaren proiektuan txertatzea aukera interesgarria izan dela adierazi du, "pertsona ezberdinen arteko harremanak eta sinergiak bultzatzeko".

Landaketa hirian zehar

FruitOndoan ekimenak bertako fruta arbolak barietateak hiriko hainbat espazio publikotan landatzea du xede. Orkolagak gaineratu duenez, "oraingoz, tokiko sagarrondo espezie batzuk ditugu, baina, proiektua zabaldu ahala, beste euskal barietate batzuk ere txertatuko ditugu". Halaber, esperientzia honek "alde guztientzat oso positiboa" izaten ari dela azpimarratu du.

HITZA 2025.03.21

Kofradia y Cristina Enea lanzan un concurso escolar sobre pesca

Podrá participar el alumnado de 3º, 4º, 5º y 6º curso de Primaria y de 1º y 2º

A. E. / Redacción

26 marzo, 2025



Concurso-reto "Aliméntate sano y sostenible, alimenta la pesca de bajura" Foto: Kofradia

Kofradia-Itsas Etxea y Fundación Cristina Enea han presentado el concurso-reto **"Aliméntate sano y sostenible, alimenta la pesca de bajura"**. Podrá participar el alumnado de 3º, 4º, 5º y 6º curso de Primaria y de 1º y 2º curso de Secundaria, y deberá hacerlo por clases completas.

Para participar en el concurso-reto los centros interesados deberán desarrollar **una investigación escolar** sobre las características, hábitos, estado ecológico, técnicas de captura y aprovechamiento culinario de las siguientes especies de pesca de bajura: verdel, anchoa del Cantábrico, bonito del norte, merluza y congrio.

DONOSTITIK 2025.03.26

También deberán incluir una propuesta de recetario creativo que incorpore, al menos, una receta para la elaboración de un plato con cada una de esas especies. Los proyectos podrán incluir textos, imágenes, fotografías y enlaces a vídeos o audios, y **el plazo para enviarlos finalizará el 30 de mayo.**

Para poder abordar el proyecto hay una **“Guía de recursos para el profesorado”** que incluye información general, propuestas de actividades y modelos para elaborar las recetas. Como parte de la investigación escolar también se completará un cuestionario sobre hábitos de alimentación y consumo de pescado.

El jurado estará integrado por un especialista en **ecosistemas marinos**, un capitán de pesca de bajura, un especialista en gastronomía y restauración y un docente con experiencia en desarrollo didáctico. El jurado valorará la originalidad en el planteamiento de la investigación, la fiabilidad de los contenidos desarrollados, la creatividad de las recetas.

Un premio “pasado por agua”

